



Izenburua	Sare sozialak eta euskara, azaleko erradiografia bat
Egilea	Luistxo Fernandez
Data	2010/04/21

Sare sozialak eta euskara, azaleko erradiografia bat

Sare sozialak eta euskara gaian ezer esateko gauza sentitzen banaiz, neurri handi batean kontu honetan azken hilabeteetan lan egiteko aukera izan dudalako da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz, neure enpresak CodeSyntax.ek, eta gurekin batera beste batek, Farapi aholkularitza zerbitzuak, azterketa bat egiten jardun dugu, gizarte-sareek euskararen erabileraren sustapenean duten eraginkortasuna ezagutzeko.

Lan horren barruan, aztertu beharreko sare sozial zehatzen hautapen bat egin genuen, eta hiru erabaki genituen, Facebook, Twitter eta Tuenti. Eztabaida taldeak bilatu genituen, hiru sare sozial hauetan, eta beste bat orokorragoa euskalgintzaren esparruko zenbait eragilerekin. Era berean behaketak programatu ziren hiru sare sozialetako erabiltzaileekin, pribatutasun konpromiso zehatzekin, beren jarduna eta beren ingurukoena praktikan ikusi ahal izateko.

Tuentin oso jende gaztea (eta ia gazte guztiak bertan; 14-22 urte arteko tarte batean bederen Hego Euskal Herrian). Twitterren beste pelaje batekoak ikus daitezke: inguru teknofilo edo/eta mediatikoan (kazetaritza, diseinua, kultura-produkzioa...) dabilzan profesionalak batik bat, eta pixkanaka beste profil batzuetakoak ere bai, baldin eta lagunak eduki badituzten lehendik. Facebook-en, azkenik, profil orokorragoko jendea.

Tresna hauei erabilgarritasun desberdina ikusten diete erabiltzaileek. Normala da, ibili bazabiltza, konturatzen zara gauza desberdinetarako erabiltzen direla. Twitterrek informazio iturri fresko eta azkar gisa duen balioa azpimarratzen dute erabiltzaileek. Facebook eta Tuenti sozializatorako erabiltzen da batik bat. Hala ere, sozializazio / informazio mugak ez dira hain garbiak. Koadrilak egon daitezke Twitterren, egunerokoaz jarduten; eta informazioa zabaltzeko bidea ere badira Tuenti (ebentodeialdien mekanismoa asko erabiltzen da) eta Facebook (jendeak informazioestekak partekatzen ditu, eta erakundeek ere baliatzen dituzte bertako kanalak).

Gure azterketan, arreta jarri diogu sareetan hizkuntza erabiltzeko egon daitezkeen motibazioari. Eta faktore desberdinak hartzen dira kontuan, mezuak igortzeko bi modu nagusietan, zeinak izan daitezke norberaren adierazpen propioa, eta pertsona jakin bati zuzenduak (norbaiti "horman" utzitako mezua (FB/Tuenti) edo zuzendutako erantzuna (@modua, Twitter). Segun eta norentzat den mezua, modulitzen da hizkuntza.

Norberaren adierazpena denean kontua, audientzia hartzen du kontuan erabiltzaileak, eta jarraitu-jarraitzaileen taldea eleanitza izaten denez, gaztelaniara jotzeko joera garbia dago. Nork bere audientzian azpi-talde definituak izan ditzakeela ere sentitu dezake dute, eta orduan bai, bidal dezakete mezurik ingelesez, edo euskaraz, azpi-audientzia gogoan. Baina, oro har, audientzia eleanitzen pisuak, euskara erabiltzearen praktikotasuna murrizten du.

Pertsona jakin bati zuzendutakoan, berriz, pertsona horrekin kalean zuzenduko zitzaion hizkuntzan zuzentzen zaio sare sozialaren erabiltzailea reply edo horman mezua uztean. Hemen ere argi ikusten da “Lagun euskaltzalearen efektua”, Josu Lezametak definitu zuena Interneten mundu fisikorako: bere inguruan indar-eremu bat sortzen dela, 5-10 metrokoa, eta haren barruan euskaldunak euskaraz hasten zaizkiola, baina indar-eremutik kanpo gaztelerez hasten direla. Ba, mundu fisikoko fenomeno fisiko bitxi honetatik, birtualera pasatutakoan, berdin. Euskaltzaleari, euskaraz egin; eta bestela, jardun ez-ideologizatuan, “normalago”, gaztelaniaz. Harietan, reply egitean edo mezu-kate batean erantzun bat gehiago uztean, erabiltzaileak begiratu dezakete jarduna nola garatu den, baina eztabaidataldeetakoek diote helburu-pertsonari zuzentzen zaizkiola horrela ere. Adibidez, Mariren argazkiak, 4 erantzun jaso ditu gaztelaniaz, baina Maite euskaldunak, euskaraz du tratua Marirekin, eta 5. erantzuna uztean, euskaraz egin diezaioke, aurrekoari kasu egin gabe: noski, Mari euskaltzalea bada, are aukera gehiago hau gertatzeko.

Indar-eremuaren efektuaz gain, bestela ere ezagutzen ditugun euskararen aje batzuk gertatzen dira sarean.

- Freskotasuna eta informaltasuna = gaztelania
- Komunikazio intenzionatua = euskara

Euskara zuzen idazteko joera (eta beldurra, ea ez ote den asmatuko) igarri da: eremu formaleko hizkuntza, hezkuntza mundukoa, horixe da euskara. Bitxia da gainera, gaztelaniaz zuzentasun joerarik ez dela nabaritzen Tuentin. Inork ez du beldurrik gaizki idazteko gaztelaniaz. Bai ordea, euskara okerraren beldur hori.

Erregistro nahasketa ere badago sarean, nola ez. Tipologia tipikoena da mezuetan elementu adierazgarriak (sozializatzeko, hurbiltasuna erakusteko balio dutenak) euskaraz sartzearena. Adibidez “kaixo” hasteko eta “muxuak” agurtzeko, baina erdian doana, muina, gaztelerez Euskañolaren fenomeno ere, neurri batean, aurreko puntuko elementu adierazgarriekin zerikusia izan dezakeelakoan nago ni.

- Que lo pases bien en tus urtes!

Formula hori ez da txiste zabar bat. Hurbiltasuna erakusten du. Keinu adierazgarri bat da igortzailearen eta jasotzailearen artean, eta adierazten du, kariñoaz aparte, biak euskaldunak direla. Agian lartxo da esatea, baina euskañola kontu identitarioa ere bada. Euskaldunen artean, keinu abertzale baten traza izan dezake euskañolak. Erdara hutsez jardunez gero erdaldun hutsak direnekin, ez duzu halako keinurik sartuko normalean.

Tuentiko kasuan, beste erregistro mailakatze argi bat ere ikusten da, ebento edo gertakarien kasuan (Tuentiko objektu sozial nagusietako bat da ebento edo deialdia; jendea mordoa gonbidatuz benetako ekitaldi batera, edo adierazpen-aldarrikapen batera). Erabiltzaileek beraiek sortzen dituzte ebentoak, eta hizkuntzaren aldetik ere badute ezaugarririk: Euskarazkoak, euskararekin edo euskalgintzarekin dute zerikusia, edo zuzenean izaera politiko abertzalea dute (eta ezker abertzalekoa, horietan askotan) Beste edozein gaitako ebentoak, gaztelaniaz konbokatzen dira.

la euskaldunen kasuan, edo euskalduntze bidean daudenen kasuan ere, ikusten dira gauzatxo batzuk sarean: Batetik, okerrak egiteko beldurra (baita Tuentin ere, non, aldiz, gazteleraz oker egiteko beldurrik ez duen inork). Twitter, bereziki, zaila egiten zaio jarraitzeko euskaraz ondo ez dakienari: mezu labur landuak edo gako ezkutuak/jakinak dituztenak egiten dituzte erabiltzaileek (hizkuntza guztietan); eta euskaraz horrela dabilenari jarraitzea zaila da.

Euskara hobetu nahian dabilzanek, interfazea euskaraz jartzeko ahalegina egiten dute (Tuentiko kasu batzuk), baina interfaze<->jarduna erlazioan ez dago alde handirik.

Honetan guztian, egia esanda, nik ez dut nabaritzen erreal / birtual bereizketa handirik. Ezer berririk ez, sare sozial hauetan. Norbaiti hizkuntza batean zuzentzea erabakitzerakoan, harekin kalean normalean egingo lukeena aukeratzen du erabiltzaileak Lagun euskaltzalearen efektua ere badago, baina lehen esan dugun bezala, kalean ere detektatua dugu kontu hau. Era berean, kalean ezaguna dugu kasua, koadrilatxo euskaldun batean, sartu dela gazteleraduna berrikeram eta gaztelerara igarotzen gara; horrekin paralelismo argia ikusten dute erabiltzaileek, adibidez Twitterren, audientziaren arabera mezuak modulatzeko dituztela azaltzean.

Erreal / birtual bereizketa posible bat, ordea, ikus daiteke. Facebook-eko erabiltzailearen batek aipatu zigun, batzuekin sarean zein kalean desberdin joka dezaketela erabiltzaileek. Twitterren ere baliteke hau gertatzea. Motiboa izan daiteke lomunikazioak ingurune horretan kutsu profesionala izatea, tresnari ematen zaion erabilpenagatik, eta harreman profesional horretan euskarak funtzioaren bat betetzea. Foro Publikoan egotearen sentsazioa ere izan liteke kontua. Tuentin koadrilan edo tabernan bezala daude erabiltzaileak, Facebook-eko helduagoak inguru formalagoa senti dezakete inguruan eta "besteen begiradapean" jokatu, nahiz eta delako pertsona zehatz batekin diharduen

Neure aburuz, erreal / birtual esparruan birtualtasunak eraginik badu, euskararen okerrerrako da gehienbat. Sare eleanitzetan daude euskaldunak, audientzia anitzekin: hizkuntza zabalduagoetara jotzeko joera indartzen da. Bere herria euskalduna izan arren, sare bidez esparru hori zabaldu egiten du (adinean aurrera eginez ere), eta kalean euskaraz egiteko aukerak baditu, gehiago izango ditu sarean erdaraz egitekoak.

Ingurune erdaldunagoan bizi den euskalduna, aldiz, teorikoki pertsonalki beste euskaldun batzuekin kontaktuam egiteko aukerarik badu. Baina bere gogoaz ez bada monotematikoa (euskararen militantea 24 ordutan), bere sarea eleanitza izango da, besteena bezala, erdarara jotzeko aukera beti presente horrekin parte hartuko dui sarean. Konexio pertsonalak euskaraz egin arren, inguruan eragitea zaila, Sareko Sestaok duen itxura linguistikoa nekez aldatuko du Sestaoko euskaldunek sarean egoteak. Aldiz, Sareko Elgetan erdaraz infiltratzeko aukera guztiak dauzka.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:

